

Gobernu Batzarraren Akta

Bildutakoak:

Patxi Ibarguren Etxeberria	Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik
Pepe Iparraguirre Balda	Andoaingo Udaletik
Iratxe Begiristain Otegi	Usurbilgo Udaletik
Jorge Segurado Iriondo	Urnietako Udaletik
Nuria Fernandez Castrillo	Lasarte-Oriako Udaletik
Xabier Urdangarin Lasa	Astigarragako Udaletik

Akta Zenbakia

00000002

Eguna
2024/02/19

Iraupena
-

Asistentzia teknikoa:

Julen Mungia Gorrotxategi	Mungia
Helene del Río Laboa	Idazkari-Kontuhartzzailea

Helene del Río Laboa	Zuzendaria
-----------------------------	------------

Parte hartzen du ere

Leire	Aldibereko interpretaria
Mikel Valero Alzaga	Hiritik At
Mariví San juan	Erroak Sartu

Gai Zerrenda

- 1.- 2024ko otsailaren 5(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bida.
- 2.- Beterri Errotuz-en aurkezpena
- 3.- Iraunkortasunaren eta Energia Lan Taldearekin zerikusia duten lanak egitea
- 4.- IAMETZA komunikazio esleipena
- 5.- Mahaiean antolakuntza eta informazio kudeaketa. Proposamena.
- 6.- Enpleguaren Aldeko Itun Sozialaren atxikimenduaren gaineko hausnarketa eta erabakia hartzeari
- 7.- Galdera, erregu eta proposamenak.
- 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 5 de febrero de 2024.
- 2.- Presentación de Beterri Errotuz
- 3.- Realización de tareas relacionadas con la Sostenibilidad y el Grupo de Trabajo Energía
- 4.- Adjudicación de comunicación a IAMETZA
- 5.- Gestión de la organización e información de las Mesas. Propuesta.
- 6.- Reflexión y decisión sobre la adhesión al Pacto Social por el Empleo.
- 7.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Gobernu Batzarraren Akta

Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

1.- Beterri Errotuz-en aurkezpena

Beterri Errotuz laneratze enpresaren aurkezpenarekin hasi da bilera. Horretarako, Erroak Sartuzeko Marivi San Juan etorri da eta Power Point baten bidez jarraitu ahal izan dugu bilera, baita Marivi San Juanek partehartzaile guztiei banatutako Memoriarekin ere. Bertan, Beterri Errotuz sortu zenetik orain arteko ibilbidea azaltzen da.

Memoria horretan 2020n Beterri Errotuz laneratze enpresa sortu zenetik orain arteko ibilbidea agertzen da. Zehazki, ondorengo gaiei buruz aritu da: zer den laneratze enpresa bat, Beterri Errotuzen sorrera, eskaintzen dituzten zerbitzuak, gizarteratzeko ematen duten laguntza, beraien bezeroak eta lan-karga, emaitza ekonomikoen kontua, lehiaketa erreserbatuak eta kontratu txikiak, laguntzak, GIZATEA zer den, zer itzulera ekonomikoa duten erakunde publikoentzat horrelako kontratazioek eta ondorioak.

Partehartzaileei eskura banatutako aurkezpena eta txostenak email bidez bidaltzeko eskatu zaio Marivi San Juani. Hortaz, Marivi San Juanek Zuzendaria bidaliko dio dokumentazioa berak gainontzeko partehartzaileei bidaltzeko.

2.- 2024ko otsailaren 5(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Beterri Errotuz-en aurkezpena egin ondoren, pasa den Gobernu Batzarreko bileraren aktaren onarpenaren bozketa egin da. 6 udalerrien baiezko botoarekin onartu da akta.

3.- Mahaien antolakuntza eta informazio kudeaketa. Proposamena.

Mankomunitateko gobernantzaren inguruan lantzen ari garen mahaian antolakuntza eta informazio kudeaketa birplanteatu egin da, izan ere, aurreko bileran esan zen moduan, lehenengo proposamenean agertzen zen gobernantza ereduak lan-karga handiegia suposatzen zuen udalentzat (kronogramak ordu asko suposatzen zizkien udal teknikariei eta politikariei), batez ere, honetarako giza-baliabide gutxi zituzten udalei.

Hortaz, oraingoan, bigarren proposamena aurkeztu zaie, non bileren maiztasuna murritzen den eta bilera tekniko-politikoak eta teknikoak bateratzen diren. Hiritik At-eko Mikel etorri da bigarren proposamena denoi azaltzera. Laburbilduz, mahai tekniko

Gobernu Batzarraren Akta

politikoak urtean 1etik 4era izan daitezke eta gai bakoitzaren beharraren arabera lantalde teknikoak deituko dira premia dagoenean.

Lasarte-Oriako ordezkariak berriro bere kezka azaldu du. Gutxienez bere udaletik ezin dituztela ordu asko sartu sistematikoki (bileren lan kargak ezin duela handia izan eta Mankomunitatean modu autonomo batean lan egin behar dela). Hala ere, ulertzen du hasiera batean, udaletatik Mankomunitatera egin behar den informazio traspasoa dela eta, bileren zama handiagoa izatea, baina behin hori eginda, etorkizunean, lan egiteko moduak ezin diela udalei lan-karga handia suposatu.

Hori esan eta gero, bigarren proposamena onartzeko bozka egin da eta denek aho batez onartu dute.

Hala ere, Lehendakariak komentatu du oraingoz horrela jokatuko dugula eta etorkizuean aldaketaren bat egitea aurreikusten bada, hura proposatu daitekeela.

Bestalde, gai honekin zerikusia duen beste gai bat azaleratu du Zuzendariak eta galdezu du udal guztien intereserako den dokumentazioa nola eta nori bidali (teknikoei, politikoei, teknikoei zein politikoei...), hau da, zein izango den Udalei informazioa eta txostenak helarazteko erabiliko den irizpide edo protokoloa. Azkenean erabaki da batzordeko kideei, gai bakoitzerako Udalak ezarri duen politikariari zein Udal bakoitzak arlo bakoitzarentzat zehaztutako teknikariei bidaltzea. Urnietako ordezkariak azaldu bere kasuan gustatuko litzaiokeela beste partidokoa den gobernu kideari ere bidaltzea dokumentazioa. Hortaz, ezarritako irizpidearen arabera egingo da informazio banaketa eta Udalen batek bere zerrendan aldaketak egin nahi baditu adieraziko du. Lasarte-Oriak, hortaz, bere zerrenda aztertuko du mankomunitateak eskuz bete baitu probisionalki maiztasunen inguruko analisia egiteko.

Mahaien osaketara itzulita, Lehendakariak galdezu du ea ordezkari guztiak ados zeuden bertan agertzen diren azpi ildoekin. Lasarte-Oriako eta Urnietako ordezkariak adierazi dute hemendik aurrerako azpi ildo horiek zeintzuk izan behar diren eta horiek nola landu hobeto dela sortuko diren mahai horietan lantzea eta hitz egitea. Horren harira, Astigarragako ordezkariak adierazi du, horregatik, komeniko litzatekeela lehenengo bilera politiko-teknikoa izatea.

14.18h zirenean, Usurbilgo ordezkariak bilera utzi du, joan egin behar zuelako.

Gobernu Batzarraren Akta

4.- Iraunkortasunaren eta Energia Lan Taldearekin zerikusia duten lanak egitea

Lasarte-Oriako ordezkariak adierazi du oraindik ez duela argi proposatutako iraunkortasuneko lan talderako jartzen dituen ekintzak egiteko eskumena duen edo ez. Esan du bere udaleko idazkariarekin gainetik komentatu duela gai hau, baina nola bilera honetako dokumentazioa eta idazkariaren txostenetan asteazken arratsaldean jaso zuenez, bere idazkariak ez duela nahikoa denbora izan gai hau sakontasunean aztertzeko.

Hala ere, esan du agertzen diren ekintza batzuetan (kale argiteria, auzoetan egin beharreko zer edo zer...) udalen eskumena izan daitekeela. Zuzendariak esan du Lan Talde honen helburu nagusiak bi direla: GFAk eskualdeko ordezkari diren mankomunitatea eta agentziei eskatzen dien Energia Plana egiteko beharrezko informazioa eskuratzea eta udal batzuk ireki dituzten energia bulegoetan lan egiteko, "lehen aukera" bidez, kontratatu dituzten gazteei beharrezko formakuntza ematea. Horretaz gain, esan du ez dela Mankomunitatearen helburua udalen eskumenak urratzea eta hasierako proposamenean agertzen diren eta Lasarte-Oriako ordezkariak aipatutako ekintza batzuk aldatu beharko liratekeela (maiztasuna, udalen praktika eredugarriak ezabatzea, gairen bat ere kentzea...).

Astigarragako ordezkariak adierazi du Estatutuetan Mankomunitateari dagozkion eskumenak eta ekintzak adieraztea oso zaila dela. Berak ulertzen duela Estatutuak orokorrakoak izan behar direla eta Estatutuetan ezin dela dena jarri.

Horren harira, Lehendakariak esan du bi aukera posible ikusten dituela:

- Eskumen eta eginbeharreko guztiak estatutuetan islatu
- Sortuko diren eskualdeko mahaietan landu eta erabaki udalek eta Mankomunitateak zer egingo duen.

Azkenik, Lehendakariak galdu du, laburpen moduan, ea onartzen den Mankomunitateak ere izatea eskumena Energian eta Iraunkortasunean, eta baita Eskualdeko Energiaren Lan Taldea osatzeko ere, nahiz eta azken honetan ekintza batzuk kendu daitezkeen udalenak direlako (argitegia...). Ez du baiezko ezta ezezkorik jaso. Lasarte-Oriako ordezkariak adierazi du berak gai hau bere idazkariarekin landu behar duela.

5.- IAMETZA komunikazio esleipena

Hemen hitza Urnietako ordezkariak hartu du eta esan du gardenagoak izan beharko ginatekeela. Aurreko bileran berak gai honi buruz galdu zigunean, erantzun zitzaison gauza bakarra izan zela ez zela funtzionario bat kontratuko, enpresa bat baizik Mankomunitateko komunikazioa kudeatzeko. Gainera, bilera hori baino egun batzuk lehenago kontratazio mahaia egon zela eta ez zela horrelako aipamenik egin. Berak adierazi du ez zaiola lizitazioko faseei buruz ezer adierazi, hau da, ez zaiela ezer

Gobernu Batzarraren Akta

jakinarazi ondorengoei buruz: pleguak, kontratacio-mahaia eta organo horrek hartutako erabakia... Gainera, adibide moduan gehitu du IAMETZAk eskaintza anormalki baxua eskaini zuela eta ez dela horri buruz aipamenik egin. Orokorean, informazio eta gardentasun gehiago eskatzen du. Bestalde, gehitu du ez dakiela oso ondo zergatik egin den lizitazio bat urtebeterako kontratua baldin omen bada, agian, urtebeteko luzapenarenengatik izango ote dela uste du. Lasarte-Oriako ordezkariak ere berdin pentsatzen duela esan du.

Idazkari-Kontuhartzaleak adierazi du egia dela ez zaiela lizitazioko nondik norakoak jakinarazi, baina hasieratik jakin dutela intentzioa zegoenean komunikazio zerbitzua kontratzeko, hura martxan jarri zenean eta orain prozedura bukatu denean. Hala ere, aitortu du gardentasun aldetik arrazoi duela eta etorkizunean kontratacio mahaietara joateko Gobernu Batzarreko kideei luzatuko zaiela gonbita eta lizitazio prozedurari buruz informazio gehiago ematen saiatuko garela. Oraingoan horrela jokatu ez izana ez omen da arrazoi zehatz batengatik izan (horren atzean ez dagoela arrazoirik), prozedura azkarra izan dela eta zenbateko eta epealdi motzekoa. Izan ere, diru kopuruarenengatik kontratu txiki bidez egin daitekeen lizitazioa egin dela adierazi du idazkari-kontuhartzaleak, ahalik eta gardentasun eta lehiakortasun handiena sustatzeko, eta horregatik prozedura azkarra izan dela. Hala ere, bere ekarpenak kontuan hartuko ditugula etorkizunerako esan dio Urnietako ordezkariari.

Lehendakariak esan dio Urnietako ordezkariari laster izango dugula IAMETZArekin lehen bilera, eta bertan Mankomunitatean, komunikazioari dagokionez, lehen hastapenen planteamendua Gobernu Batzarkideekin partekatzea proposatu du, denek jakin dezaten zein izango den Mankomunitatearen komunikazio estrategia. Urnietako ordezkariak eskertu du, baina adierazi dio aurreko bere partehartzearekin ez duela esan nahi hemendik aurrera dena aurkeztu behar dela Gobernu Batzarrean.

6.- Enpleguaren Aldeko Itun Sozialaren atxikimenduaren gaineko hausnarketa eta erabakia hartza

Aurreko bileran gai hau bozkatzekotan gelditu zen. Orduan, orain, nahiz eta Usurbilgo ordezkaria (%8,40) ez egon, bozkara eraman da. Hau izan da emaitza:

Alde: Lasarte-Oriako ordezkaria (%25,65)

Kontra: Andoain (%19,71), Astigarraga (%10,02) eta Hernaniko ordezkaria (%27,75)

Abstentzia: Urnietako ordezkaria (%8,47)

Boto hiztatu osoen 2/3n (%66,66) behar denez erabakia hartzeko, eta alde bakarrik Lasarte-Oriako Udala agertu denez (%25,65), ez dira erabakia hartzeko nahikoa aldeko boto eskuratu, beraz, oraingoz gutxienez, Beterri-Buruntza Mankomunitatea ez da Enpleguaren Aldeko Itun Sozialean atxikituko.

Gobernu Batzarraren Akta

7.- Galdera, erreku eta proposamenak.

Idazkari-Kontuhartzaleak, Beterri Errotuzen aurkezpena dela eta, eta aurreko bileretan eskatu genuen bezala, galdu die udal ordezkariei ea bakoitzak bere udalean egin duen kontrastea eta eskuratu duen zein izango den udal bakoitzaren konpromezua kontratatu nahi den laneratze enpresarekiko. Hau da, ea badakiten zer intentzio duten laneratze enpresari eskatuko zaizkion lanak eta diru-kopuruari dagokionez. Hori jakitea beharrezkoa da prestatzen hasteko atera behar dugun lizitaziorako plegu erreserbatu eta bateratua.

Astigarragako ordezkariak erantzun du beraiek orain arte Beterri Errotuzi eskaintzen dizkion lan eta diru-kopuru antzekoetan mugituko dela (agian, aukera egon daitekeela dirukopurua zertxobait igotzeko).

Andoaingo ordezkariak adierazi du plegu bateraturako 70.000€ jartzeko prest dagoela, gaur egun indarrean dagoen kontratazio bateratuan jartzen duena baino gehiago. Eskainiko dituzten lanei dagokionez, lan antzekoak egiteko intentzioa dutela esan du, nahiz eta azken informazio hau kontrastatuko duen.

Lasarte-Oriako ordezkariak esan du berak udalean lanketa honekin jarraitu behar duela eta, horregatik, oraindik ez duela erantzunik. Gaur jasotako aurkezpenarekin eta lehenagotik zeukan informazioarekin, bere udalean gai hau ondo planteatu nahi duela esan du. Aitorru du, bere aldetik, proiektu oso interesgarria iruditzen zaiola eta plegu bateratuan sartzeko ahalegina egingo duela. Honetaz gain, esan du zalantza sortzen diola oraintxe bertan ez danielako zer lan eskaini diezaieketen laneratze enpresari Lasarte-Oriak. Ideia batzuk partekatu dituzte ordezkariek, beraien udalean egiten dituzten lanetan oinarrituta, eta gomendatu zaio edozein zalantzaren aurrean Marivi San Juani (Beterri Errotuz) galdezko.

Urniako ordezkariak adierazi du beraien aldetik gaur egun indarrean dagoen kontratuko lanak eta diru-kopuruak mantendu nahi dituztela, eta, kasuan kasu, plegu bateratuaz gain, kontratu txikiak sinatzeko aukera ere egongo litezkeela.

Hernaniko ordezkariak adierazi du bihar bilera daukala udalean gai hau tratatzeko eta horren ondoren hobeto jakingo duela zer konpromezu hartu dezaketen.

Idazkari-Kontuhartzaleak ondo ikusi du beraien ekarpena eta oraindik erantzuna ematea falta zaien udalei, beranduenez, datorren Gobernu Batzordearen bilerarako erantzun hori ekartzea eskatu dio.

Horren harira, datorren Gobernu Batzordearen bilera martxoaren 11n jarri da, eguerdiko 12:30etan. Bestalde, horren ondorengo bilera aste santuan tokatuko zelako, zalantza egin dute martxoaren 18an bilera hori jarri edo apirilaren 8an. Lasarte-Oriako ordezkariak gogoratu du berak udalean Batzordeak izaten dituela hilabete hasierako

Gobernu Batzarraren Akta

lehenengo eta bigarren asteko astelehen eta asteartetan. Azkenean, erabaki da martxoaren 18an sortzen ari garen eskualdeko iraunkortasuneko lehen bilera politiko-teknikoa jartzea, eta data horretaz baliatzea zerbait komentatu behar bada Gobernu Batzarrean.

Horretaz gain, Zuzendariak adierazi du Elkar Ekin programaren baitan egiten ari garen Emaktiva programan (EDE Fundazioarekin batera), ekitaldi bat dagoela ostiral honetan eta Lehendakaria bertan egongo dela egitasmoen buruzko hitz batzuk esateko. Horregatik, norbaitek interesa balu joateko gonbita duela.

Betalde, Astigarragako ordezkariak, Mankomunitateko komunikazioaren harira, iradoki du barne-boletin bat sortu daitekeela, Mankomunitateko politiko eta udaleko teknikari guztiei bidaltzeko. Hilabeteroko boletintxo bat izan daitekeela esan du eta bertan, lerro gutxitan, Mankomunitateari buruz azken berriak sartu daitezkeela (partehartzen ari diren programak, azken berriak...). Begi-onez ikusi da eta kontuan hartuko da IAMETZArekin egingo den lehen bilerarako.

Azkenik, Lehendakariak aipatu du Mankomunitateko langileen artean idea bat azaleratu dela: KORRIKAREN kilometro bat erostea. Lehen ideia bat besterik ez dela esan du eta iniziatiiba horren bideragarritasuna aztertuko dela. Begi-onez ikusi dute ideia hori, baina partaide guztiak esan dute ez dutela korrika egingo.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 15:09 minitu zirenean. Idazkari-Kontuhartzaleak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorri Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkari-Kontuhartzalea naizen honek, ematen dut.

O.E., / Vº Bº
Lehendakaria

Idazkari-Kontuhartzalea

Gobernu Batzarraren Akta

19/02/2024

1.- Presentación de Beterri Errotuz

Comienza la reunión con la presentación de la empresa de inserción Beterri Errotuz. Para ello, ha venido Mariví San Juan de Erroak Sartuz y hemos podido seguir la exposición a través de un Power Point, así como con apoyo de la Memoria que Mariví San Juan ha entregado a todos los participantes. En ella se explica el recorrido que se ha seguido desde la creación de Beterri Errotuz.

En dicha memoria se recoge la trayectoria seguida desde la creación en 2020 de la empresa de inserción Beterri Errotuz. En concreto, se ha referido a estos temas: concepto de empresa de inserción, creación de Beterri Errotuz, servicios que prestan, apoyo a la inserción social, sus clientes y carga de trabajo, cuenta de resultados económicos, concursos reservados y contratos menores, ayudas, concepto de GIZATEA, qué retorno económico tienen para las instituciones públicas este tipo de contrataciones y sus consecuencias.

Se solicita a Mariví San Juan que envíe vía email la presentación y los informes repartidos a los participantes. Mariví San Juan remitirá la documentación a la Directora para su remisión al resto de participantes.

2.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión del 5 de febrero de 2024.

Tras la presentación de Beterri Errotuz, se somete a votación la aprobación del acta de la reunión de la Junta de Gobierno anterior. Se aprueba el acta con el voto afirmativo de 6 municipios.

3.- Organización y gestión informativa de las mesas. Propuesta.

En la mesa que se está trabajando en torno a la gobernanza de la mancomunidad se ha replanteado la gestión organizativa e informativa, ya que, tal y como se dijo en la reunión anterior, el modelo de gobernanza que aparecía en la primera propuesta suponía una carga de trabajo excesiva para los ayuntamientos (el cronograma suponía muchas horas para los técnicos y políticos municipales), sobre todo a los ayuntamientos con escasos recursos humanos para ello.

Por tanto, en esta ocasión se les presenta una segunda propuesta en la que se reduce la frecuencia de las reuniones y se unifican las reuniones técnico-políticas y técnicas. Se presenta Mikel de Hiritik At a explicar la segunda propuesta. En resumen, las mesas técnicas-políticas pueden ser de 1 a 4 al año y en función de la necesidad de cada tema se convocarán grupos técnicos de trabajo cuando resulte necesario.

Gobernu Batzarraren Akta

19/02/2024

La representante de Lasarte-Oria reitera su preocupación. Que al menos desde su ayuntamiento no pueden hacer muchas horas sistemáticamente (que la carga de trabajo de las reuniones no puede ser grande y que hay que trabajar en la Mancomunidad de forma autónoma). No obstante, entiende que, en un principio, el trasvase de información de los Ayuntamientos a la Mancomunidad supone una mayor carga de reuniones, pero una vez hecho esto, en el futuro, la forma de trabajar no puede suponer una carga de trabajo para los Ayuntamientos.

Dicho esto, se somete a aprobación la segunda propuesta, que es aprobada por unanimidad.

No obstante, la Presidenta comenta que de momento procederemos de esta manera y que si en el futuro se prevé alguna modificación se podría proponer.

Por otra parte, la Directora plantea otra cuestión relacionada con este tema y pregunta cómo y a quién se va a enviar la documentación que interesa a todos los ayuntamientos (técnicos, políticos, tanto a técnicos como a políticos...), es decir, cuál va a ser el criterio o protocolo que se va a seguir para trasladar información e informes a los Ayuntamientos. Finalmente se acuerda su remisión a los miembros de la Comisión, al político que haya establecido el Ayuntamiento para cada tema y al personal técnico que cada Ayuntamiento determine para cada área. El representante de Urnieta explica que en su caso le gustaría que la documentación fuera remitida también al miembro del Gobierno que pertenece al otro partido. Por lo tanto, la distribución de la información se realizará según el criterio establecido y si algún Ayuntamiento desea realizar modificaciones en su listado lo indicará. Lasarte-Oria revisará su listado ya que ha sido cumplimentado por la mancomunidad manualmente para el análisis de frecuencias.

Volviendo a la composición de las mesas, la Presidenta pregunta si todos los representantes estaban de acuerdo con las sublíneas que aparecen en la misma. La representación de Lasarte-Oria y Urnieta manifiestan que a partir de ahora es mejor tratar y hablar en esas mesas sobre cuáles deben ser esas sublíneas y cómo trabajarlas. A este respecto, el representante de Astigarraga señala que por ello sería conveniente que la primera reunión fuera político-técnica.

A las 14.18h la representante de Usurbil abandona la reunión por cuestiones de agenda.

Gobernu Batzarraren Akta

19/02/2024

4.- Realización de tareas relacionadas con el Grupo de Trabajo Sostenibilidad y Energía

La representante de Lasarte-Oria manifiesta que aún no tiene claro si es competente para el grupo de trabajo de sostenibilidad propuesto, llevar a cabo las acciones que establece. Dice que ha comentado con la Secretaria de su Ayuntamiento este tema, pero que como recibió la documentación de esta reunión y el informe del Secretario-Interventor el miércoles por la tarde, su Secretaría no ha tenido tiempo suficiente para tratar este tema en profundidad.

No obstante, dice que en algunas de las acciones que aparecen (alumbrado público, trabajos a realizar en los barrios...) puede ser competencia municipal. La Directora dice que los objetivos principales de este Grupo de Trabajo son dos: obtener la información necesaria para la elaboración del Plan de Energía que la DFG solicita a la Mancomunidad y a las agencias representantes de la comarca y facilitar la formación necesaria a los jóvenes que han contratado a través de "Lehen Aukera" para trabajar en las oficinas de energía que han abierto algunos Ayuntamientos. Añade que no es objetivo de la Mancomunidad vulnerar las competencias municipales y que habría que modificar algunas de las acciones que aparecen en la propuesta inicial y que menciona la representante de Lasarte-Oria (frecuencia, supresión de las prácticas municipales exemplarizantes, eliminación de algún otro tema...).

El representante de Astigarraga comenta que es muy difícil que los Estatutos señalen las competencias y compromisos que corresponden a la Mancomunidad. Que entiende que los Estatutos deben ser más generales y que en los Estatutos no se puede poner todo.

En este sentido, la Presidenta ha dicho que ve dos alternativas posibles:

- Reflejar en los estatutos todas las competencias y deberes
- Elaborar y decidir en las Mesas Comarcales que se crean la actuación de los Ayuntamientos y de la Mancomunidad.

Por último, la Presidenta pregunta, a modo de resumen, si se acepta que la Mancomunidad sea también competente en Energía y Sostenibilidad, así como para conformar el Grupo de Trabajo de Energía de la Comarca, aunque en este último se pueden eliminar algunas acciones por pertenecer a Ayuntamientos (Centro de Información...). No ha recibido ni afirmativo ni negativo. La representante de Lasarte-Oria señala que ella debe tratar este tema con su secretaria.

5.- Adjudicación de la comunicación IAMETZA

Aquí toma la palabra el representante de Urnieta y dice que deberíamos ser más transparentes. Cuando en la reunión anterior se nos preguntó por este tema, lo único que se le contestó fue que no se iba a contratar un funcionario para gestionar la comunicación de la Mancomunidad, sino que íbamos a contratar una empresa. Además, que días antes

Gobernu Batzarraren Akta

19/02/2024

de dicha reunión hubo mesa de contratación y no se hizo mención alguna al respecto. Indica que no se le ha dicho nada sobre las fases de la licitación, es decir, que no se les ha comunicado nada sobre los pliegos, la mesa de contratación y el acuerdo adoptado por este órgano... Además, añade como ejemplo que IAMETZA ofreció una oferta anormalmente baja y que no se ha hecho mención alguna al respecto. En general, requiere más información y transparencia. Por otra parte, añade que no sabe muy bien por qué se ha hecho una licitación si se trata de un contrato por un año, quizás sea por la prórroga de un año. La representante de Lasarte-Oria también opina lo mismo.

El Secretario-Interventor señala que es cierto que no se les ha informado de los términos de la licitación, pero que han tenido conocimiento desde el inicio de la intención de contratar el servicio de comunicación tanto cuando se puso en marcha como ahora que se ha finalizado el procedimiento. No obstante, reconoce que tiene razón en cuanto a la transparencia y que en el futuro se invitará a las reuniones de la Junta de Gobierno a acudir a las mesas de contratación y trataremos de ampliar la información sobre el procedimiento de licitación. Que en esta ocasión no se haya actuado de esta manera no es por una razón concreta (no hay motivo alguno), que ha sido un procedimiento rápido y de cuantía y plazo reducidos. En efecto, el Secretario-Interventor señala que por el importe que es, se ha llevado a cabo una licitación mediante contrato menor, con el fin de promover la máxima transparencia y libre competencia, por lo que el procedimiento ha sido ágil. No obstante, comenta al representante de Urnieta que para el futuro tendremos en cuenta sus aportaciones.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Preguntas, Ruegos y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, se adoptaron los siguientes acuerdos.

6.- Reflexión y decisión sobre la adhesión al Pacto Social por el Empleo

En la reunión anterior quedó pendiente la votación de este asunto. En este momento, aunque no esté presente la representante de Usurbil (8,40%), se pasa a votación. El resultado ha sido el siguiente:

A favor: representante de Lasarte-Oria (25,65%)

En contra: Andoain (19,71%), Astigarraga (10,02%) y la representante de Hernani (27,75%)

Abstención: representante de Urnieta (8,47%)

Dado que el acuerdo se adopta en 2/3 de los votos ponderados totales (66,66%) y que únicamente ha comparecido a favor el Ayuntamiento de Lasarte-Oria (25,65%), no se ha obtenido el voto favorable suficiente para la adopción del acuerdo, por lo que, al menos

Gobernu Batzarraren Akta

19/02/2024

por el momento, la Mancomunidad de Beterri-Buruntza no se adherirá al Pacto Social por el Empleo.

7.- Preguntas, sugerencias y propuestas.

El Secretario-Interventor, en relación con la presentación de Beterri Errutz, y tal y como solicitamos en reuniones anteriores, pregunta a los representantes municipales sobre el compromiso de cada Ayuntamiento con la empresa de inserción que se pretende contratar. Es decir, si ya han decidido qué trabajos va a solicitar cada Ayuntamiento a la empresa de inserción y su cuantía económica. Este dato es necesario para comenzar a preparar el pliego reservado y unificado para la licitación que vamos a sacar.

El representante de Astigarraga responde que se va a mover en trabajos y cantidades similares a las que ellos hasta ahora ofrecen a Beterri Errutz (quizá la posibilidad de subir algo de dinero).

El representante de Andoain manifiesta su disposición a aportar al pliego unificado 70.000 €; más de lo que establece la contratación conjunta actualmente en vigor. En cuanto a los trabajos que van a ofertar, dice que tienen intención de hacer trabajos similares, aunque contrastará esta última información.

La representante de Lasarte-Oria comenta que ella tiene que continuar con la sensibilización y desarrollo en el Ayuntamiento, por lo que todavía no tiene respuesta. Con la presentación recibida hoy y la información que ya tenía, dice que quiere plantear bien este tema en su Ayuntamiento. Por su parte, reconoce que le parece un proyecto muy interesante y que intentará incluir el pliego unificado. Añade que le plantea la duda de que ahora mismo no sabe qué trabajos puede ofrecer Lasarte-Oria a la empresa de inserción. Los representantes comparten algunas ideas en base a los trabajos que realizan en sus ayuntamientos y se les recomienda que ante cualquier duda, se consulte a Mariví San Juan (Beterri Errutz).

El representante de Urnieta manifiesta que por su parte quieren mantener los trabajos y las cantidades económicas del contrato actualmente en vigor y que, en su caso, además del pliego unificado, podrían firmar contratos menores.

La representante de Hernani señala que mañana tiene una reunión en el Ayuntamiento para tratar este tema y que después conocerá mejor qué compromisos pueden asumir.

El Secretario-Interventor ve bien su aportación y pide a los Ayuntamientos que aún no tienen respuesta que, a más tardar, traigan esa respuesta para la próxima reunión de la Junta de Gobierno.

Gobernu Batzarraren Akta

19/02/2024

En este sentido, la reunión de la próxima Junta de Gobierno se ha fijado el día 11 de marzo a las 12:30 horas. Por otra parte, y dado que la reunión posterior se iba a celebrar en semana santa, se plantea la duda de que se pusiera la reunión el 18 de marzo o el 8 de abril. La representante de Lasarte-Oria recuerda que ella tiene Junta en el Ayuntamiento los lunes y martes de la primera y segunda semana de comienzo de mes. Finalmente se acuerda poner en marcha la primera reunión político-técnica de sostenibilidad comarcal el 18 de marzo y aprovechar la misma fecha en caso de que hubiera que comentar algo en la Junta de Gobierno.

Además, la Directora señala que en el programa Emaktiva que ofrecemos en el marco del programa Elkar Ekin (junto con la Fundación EDE) hay un acto este viernes en el que la Presidenta estará presente para dar unas pinceladas sobre el proyecto. Por ello, si alguien estuviera interesado, está invitado a acudir.

Por otra parte, el representante de Astigarraga, al hilo de la comunicación de la Mancomunidad, sugiere que se pueda crear un boletín interno para su envío a todos los políticos de la Mancomunidad y técnicos municipales. Dice que puede ser un boletín mensual en el que se pueden incluir en pocas líneas las últimas noticias sobre la Mancomunidad (programas en los que están participando, últimas noticias...). Se ve bien y se tendrá en cuenta para la primera reunión con IAMETZA.

Por último, la Presidenta comenta que entre los trabajadores de la Mancomunidad ha aflorado la idea de comprar un kilómetro de KORRIKA. Dice que es una primera idea y que se estudiará la viabilidad de esa iniciativa. Esta idea la han visto de buen modo, pero todos los participantes dicen que no van a correr.

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria a las 15:09 horas. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno del Presidente, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de todo lo cual, doy fe yo, el Secretario-Interventor.

**O.E., / Vº Bº
Presidenta**

Secretario-Interventor



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024BG010002-AKTA/ACTA (BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA)